

URIBE KOSTAKO SUSTAPEN EKONOMIKORAKO DIAGNOSTIKO ESTRATEGIKOA EGITEA

Posted on 17/03/2025 by Naider

Uribe Kostako (Bizkaia) Udalen Sustapen Ekonomikorako Laguntza Zerbitzua den [Uribe Kostako Behargintzarekin](#) batera, [Enpresa Ekosistemaren Diagnostikoa](#) eta **Eskualdeko Sustapen Ekonomikorako Aukera Lurraldeen Identifikazioa** egin ditu Naiderekin.

Prozesuak **eskualdeko eragile nagusien parte-hartze aktiboa** izan du, **Mankomunitatearen** orientazio estrategikoa, **udalerri** guztietako **udalbatzen** inplikazioa eta lurraldeko enpresa eta eragile instituzional nagusien lankidetzak nabarmenduz.

Proiektuan zehar hainbat jardura egin dira, besteak beste, **elkarrizketa sakonak** Mankomunitateko arduradunekin, enpresa-arloko arduradunekin eta eskualdeko beste erakunde instituzional batzuetako arduradunekin. Horrez gain, diagnostikoa egiaztatzeko **galdeketa eta tailer bat** egin dira udal-ordezkariekin. Ekintza horien osagarri, **aldagai sozioekonomiko garrantzitsuenak** aztertu dira, eta eskualdeko lehiakortasunean eragiten duten **joera global nagusiak** identifikatu dira.

Diagnostiko estrategikoa [Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailak](#) eta [Uribe Kostako Mankomunitateak](#) elkarrekin antolatutako ekitaldi batean aurkeztu zen. Aurkezpen horretan, **industria-jardueraren eta zerbitzu aurreratuen sustapena indartzearen garrantzia** azpimarratu zen, eskualdeko eredu ekonomikoa eraldatzeko palanka gisa, eta **egoitza-bizitzaren kalitate handia aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzearekin bateratzeko**.

